

IRAKASKUNTZA GIDA

INSTRUKTOREEN PRESTAKUNTZA ERIZAINTZAKO PRACTICUMEAN

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

SARRERA (AURKEZPENA)

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Erizaintzako Graduak 240 ECTS (European Credit Transfer and Accumulation System) kreditu ditu, eta nahitaezko irakasgaien artean, praktika asistentzialei lotutako sei irakasgai daude, 92 ECTS kreditu esleituta dituztenak; hots, tituluaren % 40 ia (1 ECTS=25 ordu). Titulua gaitasunen eredia oinarri hartuta diseinatu zen, nahitaezko kanpo praktikak edo practicuma prestakuntzaren ardatz egituratzailetzat hartuta. Practicuma lehen mailan hasten da, eta haren ordu kopurua areagotzen joaten da, mailaz maila.

Erizaintzako practicuma egiteko, beharrezkoa da kanpo erakundearen lankidetzak, eta practicum bakoitzerako diseinatutako prestakuntza proiektuaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ezinbestekoa da erizainen inplikazioa. Erizainen artean instruktore edo kanpo tutorearen rola beteko duen bat izendatzen da, eta harena izango da erantzukizun handiena, prestakuntza jarduerak antolatu beharko dituelako unibertsitatearekin batera eta ikasleen ebaluazioan parte hartuko duelako, irakasle tutorearekin batera. Erizainek, beren eguneroko lanean, erizaintzako ikasleek garatu behar dituzten gaitasunak betetzen dituzte, modu aurreratu batean. Horrez gain, ohikoa da beren lanean lehendik erizaintzako ikasleen ikaskuntza prozesuan parte hartu izana; hortaz, ohituta daude ikasleekin feedback harreman bat izaten.

HARTZAILEAK ETA AURREBALDINTZAK

Ikastaro honen hartzaileak Erizaintzako Graduak ikasleen practicumean parte hartzen duten edo parte hartzeko interesa duten erizaintzako profesionalak dira, eta bereziki, kanpo erakundearen instruktorearen edo kanpo tutorearen rola betetzen dutenak.

GAITASUNAK

GAITASUN OROKORRA

Trebetasunak eta jarrerak garatzea, ikasleak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan gidatzeko practicumaren testuinguruan, parte hartzen duten gainerako agenteekin koordinatuta.

GAITASUN ZEHATZAK

- Erizaintzako Graduaren titulazioa ezagutzea.
- Erizaintzako Graduak practicumen gaitasunak eta ikaskuntzaren emaitzak ezagutzea, baita prestakuntza-ibilbidea ere.
- Practicumean inplikaturako agenteak eta horien funtzioak ezagutzea.
- Instruktorearen eginkizun espezifikoak ezagutzea.

- Ikasleen ebaluazio- eta kalifikazio-orria ezagutzea.
- Praktiketari konpondu beharreko ikasleen egoerak ezagutzea.

Ikaskuntzaren emaitzak

- Erizaintza ikasketen bilakaera deskribatzea.
- Erizaintzako graduaren titulatuaren gaitasunak bereiztea.
- UPV/EHUko Erizaintzako Graduaren titulatuaren diseinua ulertzea.
- Gaitasun eta ikaskuntza emaitza kontzeptuak ezagutzea, eta ikaskuntza emaitza orokorrak eta espezifikoak bereiztea, baita haien garapena ere practicum guztietan.
- Erizaintzako practicumaren prestakuntza ibilbidea adieraztea.
- Practicumaren kudeaketan eta garapenean parte hartzen duten agenteak eta haien zereginak identifikatzea.
- Tutoretza prozesuan parte hartzen duten agenteen zereginak bereiztea (ikaslea, instruktorea eta irakasle tutorea).
- Instruktoareen zereginak garatzea.
- Ebaluazio eta kalifikazio sistema aplikatzea.
- Practicumaren garapenean sor daitezkeen ohiko egoerak konpontzea.
- Ikasleek laguntza handiagoa behar duten egoerak identifikatzea eta horien aurrean erantzutea

IKASTAROAREN DESKRIBAPENA

Ikastaro hau UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen (Donostiako atala) Kanpoko Praktiken Batzordeko kide diren irakasleek diseinatu dute. Horrez gain, irakasle horiek ikasleen irakasle tutoreak dira, practicumaren testuinguruan.

Hurrengo atalean zehazten den bezala, ikastaroak 10 gai ditu, lehenengoak orokorrak dira eta practicumaren Erizaintzako Graduaren titulazioaren testuinguruan kokatzen laguntzen dute. Ondoren, ikasleen tutoretzak eta ebaluazio/kalifikazioa egin ahal izateko irakasleak behar dituen ezagutzak eta trebetasunak eskuratzeko tresnak ematen dituzten gaiak aurkezten dira.

Ikastaro hau 6 astetan egin daiteke, astean 5 ordu inguru eskainita.

IKASTAROAREN PROGRAMA ETA EDUKIAK

Ikastaroaren edukiak honako hauek dira:

- 1. GAIA: ERIZAINZAKO IKASKETEN BILAKAERA.
- 2. GAIA: ERIZAINZAKO GRADUAREN GAITASUNAK.

- 3. GAIA: UPV/EHUko ERIZAINZAKO GRADUKO TITULUAREN DISEINU PEDAGOGIKOA.
- 4. GAIA: PRACTICUMEAN GARATU BEHARREKO GAITASUNAK ETA IKASKUNTZA EMAITZAK.
- 5. GAIA: PRACTICUMAREN PRESTAKUNTZA IBILBIDEA GAINERAKO IRAKASGAIEKIN LERROKATUTA.
- 6. GAIA: PRACTICUMA KUDEATZEKO SISTEMA ETA HAREN ERAGILEAK.
- 7. GAIA: INSTRUKTOREAREN ZEREGIN ZEHATZAK ETA AITORTZA.
- 8. GAIA: ERIZAINZAKO PRACTICUMAREN TUTORETZA PROZESUA
- 9. GAIA: ERIZAINZAKO PRACTICUMAREN EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA IKASTURTEKA.
- 10. GAIA: ZER EGIN BEHAR DUT INSTRUKTORE IZATEKO?

IKASTEKO METODOLOGIA

Ikastaroa modu autonomoan egingo da, eta ongi egiteko metodologia honi jarraitzea gomendatzen da:

- Irakurri gai bakoitza ezarritako hurrenkera jarraituz eta ondoren gai bakoitzari dagokion autoebaluazio ariketak egin eta zuzendu (hurrengo atalean proposatutako kronograman zehazten den eran).
- Hainbat jarduera mota daude. Alde batetik, 4. gaiarekin zerikusia duten bi jarduera aurkezten dira, eta horietan ikasleengan praktiketan gerta daitezkeen hainbat egoera planteatzen dira, eta egoera horiek ikaskuntzaren emaitzekin lotzeko eskatzen da. Orokorrak (1. jarduera) eta espezifikoa (2. jarduera). Bestalde, kasuen ariketa bat planteatzen da, ikasleengan gerta daitezkeen egoerekin, eta kasu bakoitzean nola jokatu litzatekeen adierazteko eskatzen da.
- Erantzun zuzenak jarduera bakoitzaren amaieran daude.

KRONOGRAMA

Asteak	Zeregina	Gutxi gora beherako denbora
1.astea	Aurkezpen bideoa ikustea	20 minutu
	Irakaskuntza Gida irakurtzea	40 minutu
	1. gaia irakurtzea	60 minutu
	Autoebaluazio ariketak 1. gaia	60 minutu
	2. gaia irakurtzea	60 minutu
	Autoebaluazio ariketak 2. gaia	60 minutu
2.astea	3. gaia irakurtzea	60 minutu
	Autoebaluazio ariketak 3. gaia	60 minutu

	4. gaia irakurtzea	60 minutu
	4.gaiko 1 ariketa egitea	30 minutu
	4.gaiko 2 ariketa egitea	30 minutu
	Autoebaluazio ariketak 4. gaia	60 minutu
3.astea	5. gaia irakurtzea	60 minutu
	Autoebaluazio ariketak 5. gaia	40 minutu
	6. gaia irakurtzea	60 minutu
	Autoebaluazio ariketak 6. gaia	40 minutu
	7. gaia irakurtzea	60 minutu
	Autoebaluazio ariketak 7. gaia	40 minutu
4.astea	8. gaia irakurtzea	60 minutu
	Autoebaluazio ariketak 8. gaia	60 minutu
	9. gaia irakurtzea	60 minutu
	9.gaiko 1 ariketa egitea	30 minutu
	9.gaiko 2 ariketa egitea	30 minutu
	Autoebaluazio ariketak 0. gaia	60 minutu
5.astea	10.gaia irakurtzea	60 minutu
	Autoebaluazio ariketak 10. gaia	60 minutu
	Rasuen ariketak	90 minutu
	Azken errepassoa eta autoebaluazio finala	90 minutu
6.astea	Iturri gehiagarrien irakurketa eta ikusketa	300 minutu

MATERIALAK/BALIABIDEA

Ikasturtea egiteko emandako bibliografia erabili behar da.
Informazio gehigarria irakurtzea eta lantzea gomendatzen da

Dokumentu honetan jasotako irudi guztiak ikastaro honetako irakasle-taldeak sortu ditu eta Creative Commons CC BY-NC-SA lizentziaren arabera erabili beharko dira